

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, **2025eko martxoaren 27an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

“3.- Gizarteratze eta laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeke 2024ko dirulaguntza deialdia hutsik uztea.”

Alkatearen 2025eko martxoaren 21eko proposamenak honela dio:

Unai Kortabarria jaunak (Sozioekonomia Teknikariak eta batzordeko idazkariak) martxoaren 14an egindako txostenean (CSV zkia: ESKUab13f09a-0560-4699-8144-e79ade6c08d2) honako PROPOSAMENA egin du:

Espediente zk.: 2024ZDKO0020

Gaia: ZDKO Udalak emandako dirulaguntzak.

Jarraian azaltzen gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran onartu zituen Gizarteratze eta laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeke dirulaguntza oinarriak.

Bigarrena.- 2024ko martxoaren 14an egindako Tokiko Gobernu Batzordean onartu zen Gizarteratze eta laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeke dirulaguntzen 2024ko deialdia eta 2024 aurrekontu ekitaldiari dagozkion dirulaguntza deialdirako, bederatzi mila euroko (9.000 €) gastua baimentzea.

Hirugarrena.- Deialdia 2024ko apirilaren 8an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea hurrengo egunean hasi eta 2024ko azaroaren 29an amaitu zen.

Laugarrena.- Eskaerak aurkezteko epea igarota, ez da eskaerarik jaso.

Horrela beraz, gaiari buruzko azalpenak Sozioekonomia batzordean eman ondoren, ondorengo **erabaki proposamena** egiten zaio Tokiko Gobernu Batzarrari:

ESKU65a473e6-bb59-42a7-8615-d0a3c44398a9



OÑATI
dabilen herria

Lehenengoa.- Gizarteratze eta laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia hutsik uztea.

Bigarrena.- Erabaki hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



OÑATI
UDALA



EKS | CSV: ESKU65a473e6-bb59-42a7-8615-d0a3c44398a9

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZDKO0020-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)